

**ORTZAIZEKO  
HERRIKO  
ETXEA**  
—  
MAIRIE  
D'OSSÈS

# 2021 EKO URTEKARIA



## AURKIBIDEA

Aurrekondua -	2
Estado zibila -	5
Urbanismoa -	5
Ortzaizeko bizia -	8
Herriko zerbitzu soziala -	14
Eskolak -	15
Eliza -	19
Laborantxa -	20
Helbideratzea -	21
Herriko ontasunak -	22
Euskara -	23
Nahas Mahas -	24

## AUZAPEZAREN HITZA

### 2021 urtea aberatsa izan dela erraiten ahal dugu !

Elizaren obren segitzea, lotizamenduko lur guzien banatzea, Arrosategiaren erostea, laborantxa diagnostika, bai eta ere imersioaren lortzea eskola publikoan, webgunearen plantan emaita: horiek izan dira gure engaiamenduaren fruituak !


Beti hor dabilan koronabirusak eta berriz ezagutu ditugun uholdeek erakusten daukute gure ingurumena nola aldatzen ari den. Ez ote da mementoa, zinez konduetan hartu behar dugula zonbait urte hauetan gertatzen ari den kanbiamena ? Bakotxari gogoetatzea...

Hemendik goiti erabaki guziak garapen iraunkorraren helburuarekin hartu beharko ditugu. Elizaren obren bukaera eta estrena, laborantxaren inguruan proiektuen plantan emaita, urbanismo planoen finkatzea, karrika inguruak ber antolatzea eta helbideratze lanen bururatzea izanen dira gure erronka nagusietan.

Ikusi duzien bezala, herriko plazan Menta kafe liburutegiak ateak zabaldu ditu. Denen artean lagun dezagun berriz bizi puxka bat emaiten leku horri, ongi etorria segurtatia da!


Azkenik, Herriko kontseilu guziaren izenean, urte berri on bat desiratzen dauziet, osagarria lagun goxatuz adixkide eta familia.

## FUNTZIONAMENDU GASTUAK




● Karga orokorrak	903 036 €
● Langileria kargak	287 200 €
● Egunerokotasuneko beste kargak	210 300 €
● Beste (finantza karguak, ez-ohizko kargak, FNGIR berriz isurtzea)	21 989 €
● Ez-ustezko kargak	30 000 €
● Inbertsio sektoria buruzko transferentzia	183 463 €
<b>OROTARA</b>	<b>1 635 988 €</b>

## INBERTSIO GASTUAK




● Bideak eta artzain bideen segurtatzea	446 000 €
● Elizako teilatuaren arraberritzea	720 000 €
● Arrosategiaren erostea	400 000 €
● Eragiketa desberdin batzu (Gure Doia apartamendua, Herriko bastimendua, helbideratzea, webgunea...)	196 082 €
● A855 lur eremuaren aldaketa lotziamenduko aurrekondutik Herriko aurrekondura.	170 502 €
● Maileguen kapitalaren itzultzea	66 100 €
● Aitzineko inbertsioko ziloa	244 657 €
● Beste (Bermea, ez-ustezko gastuak, estudio gastuen integrazioa)	18 697 €
<b>OROTARA</b>	<b>2 262 038 €</b>

## FUNTZIONAMENDU DIRU-SARTZEAK



Zerbitzuen emaitza	87 780 €
Zergak	437 600 €
Diru laguntzak	273 093 €
Eguneroko kudeaketako beste diru-sartzeak	90 000 €
Ez-ohizko diru-sartzea	174 502 €
Langileriako kargen diru-itzultzea	8 600 €
Aitzineko funtzionamenduaren soberakina	564 413 €
<b>OROTARA</b>	<b>1 635 988 €</b>

## INBERTSIO DIRU-SARTZEAK



Bideetarako eta artzain bideen segurtatzeko diru-laguntza	214 045 €
Elizaren teiltuaren berritzeko diru-laguntza	474 071 €
Arrosategia erosteko mailegua	400 000 €
Beste (antolaketa zerga, FCTVA, caution, autofinantzamendua, estudio gastuen integrazioa)	65 114 €
Funtzionamendua sekzioaren transferentzia	183 463 €
Funtzionamenduaren soberakina	754 843 €
Aldabia enpresari A855 lur eremu saltzearen diru-sartzea	170 502 €
<b>OROTARA</b>	<b>2 262 038 €</b>

## FISKALITATEA

ZERGAK	HERRIKO TASAK 2020	ZERGA OINARRI AURREIKUSPENAK 2021	HERRIKO TASAK 2021	DIRU SARTZEAK
Eraikiaren lur-zerga	% 16.85	779 000	% 30.32 *	236 193
Eraikia ez den lur-zerga	% 26.67	60 600	% 26.67	16 162
Bigarren etxebizitzentzako zerga	% 19.00	136 581	% 19.00	25 950
Orotarat				278 305

\*Herriko (%16.85) eta departamenduko tasen (%13.47) metaketa, departamenduaren lur zergaren zatia herriari buruzlekualdatu eta gero.

## ZORRAK:

2021ean pagatuak : 100 122 € (91 044 € kapitala + 9 078€ interesak)

Zor den kapitala 2021/12/31: 761 240 €.

## HERRIKO MAILEGUEN BERRI

MAILEGU MOTA	MAILEGUAREN HASTAPENA	HASTAPENEN KAPITALA	MAILEGUAREN BUKAERA	PAGATZEKO DEN KAPITALA (2021/12/31AN)
Xerrenda lotizamenduaren lur eremua	2005/01/21	162 500 €	2025/01/10	31 849,47€
Florentzenea	2006/03/10	500 000 €	2026/02/25	127 709,07€
4 apartemendu Apezetxean	2007/06/20	184 370 €	2022/07/01	14 367,41€
Florentzenea berria	2012/02/11	299 225 €	2037/03/01	203 981,04€
Arrosategia	2021/06/21	400 000 €	2033/03/21	383 333,34€

2022 urtean, mailegu guzien ordaintzeko herriak 111 930,68€ pagatuko du.

## SORTZEAK

DUHALDE Amaia, 01/27a  
OXOTEGUY Mikel, 06/09a  
LEKUMBERRY Amane, 09/20a  
URDAMPILLETA Ibai, 10/24a  
OXOBY Ayana 12/03a  
ETCHEGARAY Luixa, 12/04a  
ALCASENA Bernard 12/18a

## HERIOTZAK

ARANCET veuve LARRALDE Marie-Louise, 01/11  
GRANADE veuve ÇUBURU Marie, 02/01a  
LUYÉ-TANET André, Gérard, Maurice, Roland, 02/21a  
ZARRANZ Thierry, 02/21a  
LANDABOURE Jean-Frédéric, 05/30a  
TAUZIET René, 05/31  
CAZADE Jean-Pierre, Paul, Marie, 07/26a  
BRINGUIER Roger, 09/20a  
MARTICORÉNA veuve CELHABE Dominica, 11/28a

## EZKONTZAK

Jean, Louis PEBET eta Jeanine IRIBARREN, 10/29a



Herriko etxeko estado zibila, erran nahi baitu, sortze, heriotze eta ezkontzen dokumentoak liburuetan idatzirik atxikitzen ziren 2012a arte. Hortik goiti, numerikoki sartuak izan dira. Aurten, Numérize, estado zibilaren numerizazio zerbitzua proposatzen duen enpresari deia egin dugu : 1901 eta 2012 arteko sortze aktak eta 1911 eta 2012 arteko ezkontza eta heriotze aktak numerizatuak izan dira. Horri esker, zerrenda bat eskuratu dugu sortze, heriotze eta ezkontza bakotxa sailkatzen dituenak, urteka. Biziki errexki atxemaiten ahal dira orduan. Horrez gain, dokumento horiek, usu galdeginak dira, batez ere notarioenganik. Lehen, liburuetan bilatu ondoren, fotokopiatzen ziren dokumentoak eta horrek andeatzen zituen liburu horiek. Numerizazioari esker, liburu horiek, hots, herriko ondarea, hobeki babestuko dira beraz eta bistakoa da, lana errextuko duela egunerokoan dokumentoen bilatzeko eta igortzeko.

Oroitarazten dugu 75 urte baino gehiago dituzten estado zibileko dokumentoak direla ikusgarriak publikoarengatik eta horien ikusteko, Herriko etxera hurbiltzen ahal zaitezte.

# URBANISMOA

## PLUI

2020ko otsailean, urbanismoaren gaitasuna duen Euskal Hirigune Elkargoak, lurraldeko, herrien arteko 5 urbanismo planoen (PLUi) egitearen hautua egin du bere lurraldean (158 herri). Gure herria biharko Baxe Nafarroa hegoaldeko urbanismo planoaren barne izanen da, 44 herri batzen dituenak (lehengo Garazi-Baigorri eta Iholdi-Oztibarreko herri elkargoak eta Pagola). Proiektu hori adostua izan da joan den 2021eko ekainaren 19ko kontseilu komunitarioan.

Lurraldeko herrien arteko urbanismo plano bat, zer ote da ?

Ondoko 10 urteetarako gure bizi-lurraldearen antolaketaren norabide handiak batzen dituen dokumento estrategikoa da. Lekuko herri mailako urbanismo planoak (PLU) edo karta komunalak ordezkatzeko dituen, baita lursail bakotxarentzat eskubideak aginduko dituen legezko dokumentoa da. Horrez gain, nazional mailako urbanismo legediari (RNU), arauak emaiten ahalko ditu herrien konduko. Gure bizi lurralde osoko garapen orekatua (etxebizitzaren, enpresen, ekipamenduen garapenaren eta gure bizi kalitatearen eta paisaien mantentzearen artean) segurtatzeko duen elkartasunezko dokumento bat da.

Dokumentu horren ontzeak 5 urte inguru iraunen du eta urrats desberdinak segituko ditu : diagnostikoarena, proiektu politikoaren eraikuntzarena eta bere itzulpenarena legedi mailan. Dokumentu horren egiteko, lurraldeko hautetsiak baita proiektuaren partaideak (Estadoko zerbitzuak, Akitania berriko Eskualdeko Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Departementala, kontsulatu ganbarak, SCoT sindikata mixtoa etabar) ... baita zuek, herritarrak, gure lurraldearen erabiltzaile nagusiak, mobilizatuak izanen dira tematikazko tailerretan eta lan bilkuretan parte hartzeko. Medio ezberdinen bidez, dokumentoak ezagutzeko, parte hartzeko eta zuen iritzia emateko parada ukanen duzue : herrian ezarriko den kutxa baten bidez, hitzartze erregistro batekin, Euskal Hirigune elkargoko webgunean, bilkura publikoetan...

Ortzaizen, Euskal Hirigune elkargoaren laguntzarekin, mahai inguruan biltzen hasiak dira, norabide ezberdinak lantzen hasteko. Gogoeten hatsarrea gira oraindik. Orokorki, Euskal herri mailan, ingurumen mailako baita Euskal Herriko etxebizitzaren inguruko erronkak ikusirik, lur eraikigarrien murrizteari buruz joatea izanen da helburua. Gure herrian, gogoeta berezi bat eraman nahi dugu beraz, plano hori ahal bezainbat herritarren zerbitzuko eraikia izateko, lekuko proiektuari lehentasuna emanaz.

## AGIRI OFIZIALEN GALDEAK

2022ko urtarrilaren 1etik goiti, erakitze baimenak, urbanismo agiriak, aurredeklarazioak, egokitze baimenak eta hauste baimenak interneten pausatzen ahalko dituzue "depotpermis" webgunearen bidez. Lotura Herriko webgunean gehitua izanen da erabilgarri izanen delarik. Lehen bezala paperrez egiten ahalko da Herriko etxera jinez.

## AURREDEKLARAZIOAK

<b>GALDEZAILA</b>	<b>PROIEKTUA</b>
SARL ARNABAR	KOMERTZIO LOKALAREN ARRABERRITZE ETA ANTOLATZEA
SARL PRES	PLATA PRESTATUEN SALTZEKO MAXINARENTZAT ATERPEA
DOCQUIER STÉPHANE	PIZINA BATEN ERAIKITZEA
I ENER	IGUZKI PANELEN PAUSATZEA EZKER PARETAREN TEILATUAREN GAINEAN
THD 64	TÉLÉCOM ARMAIRUAREN INSTALAKETA
LUCU CHRISTIAN	PIZINA BATEN ERAIKUNTZA
LASCARAY PEIO	AUTOKARABANA BATEN INSTALAKETA
EDF ENR	IGUZKI PANELEN INSTALAZIOA

## ERAIKITZE BAIMENAK

### GALDETZAILEA

IRIBARREN MIXEL

SAS ALDABIA

ARGAIN ISABELLE

JOURIBERRY RÉMI

SCI AGUERRIA

LALAURETTE NICOLAS

SARL DE LA TERRE ET DES IDEES

RAZIN MARIE THÉRÈSE

TROUNDAY JEAN-PIERRE

LASCARAY PEIO

EARL ETCHEBERRIA - ANSOLA  
RAMUNTZO

GAEC GURE NAHIA - HEGUY MAIDER

ETCHEGARAY SANDRINE

TROUNDAY SYLVAIN

EURL ABATX

### PROIEKTUA

BAZKA ATXIKITZEKO ERAIKUNTZA

HEGAZTI MOZKETA ETA PAKETATZERAKO  
ATELIERRA

ETXE BIZITZA ARRABERRITZEA

ATERPE BATEN SORTZEA ETA ETXE AITZIN  
ALDAKETA

KAMION ATERPE BATEN ERAIKUNTZA

ETXE BIZITZA

OSTATUA SALTOKI ETA FORMAKUNTZA  
LEKUEKIN

ETXE BIZITZAREN HANDITZEA

TEILATU BATEN EGITEA TERRAZA BATEN  
ATERPETZEKO

ETXE BIZITZA

BILTOKI ERAIKUNTZA BAT ETA IGUZKI  
PANELEN INSTALAKETA JADANIK BADIREN  
ERAIKUNTZETAN

ZAHARKITUA DEN LABORANTZA  
ERAIKUNTZA BATEN DESEGITEA ETA  
LABORANTZARAKO ERAIKUNTZA BATEN  
ERAIKITZEA

ATERPE BATEN ERAIKUNTZA.

ETXE BIZITZA

LABORANTXA ERAIKUNTZA BATEN  
HANDITZEA

## URBANISMO AGIRIAK

### GALDETZAILEA

CAMOU ANSOLA CHANTAL

TROUNDAY SYLVAIN

DE SUSBIELLE BERNARD

MOULIA LAURENCE

### PROIEKTUA

4 APARTAMENDUKO ETA ESTAI BATEKO  
ETXE BIZITZA

ETXE BIZITZA

ETXE BIZITZA

ETXE BIZITZA

# ORTZAIZEKO BIZIA



## UDAKO EKITALDIAK

2021eko udan, ekitaldi eta hitzordu zenbait antolatuak izan dira, herrian bizi baten sortzeko xedearekin, herriko plaza dinamizatuz baita ere, kulturari leku bat emanez herrian.

Xehekiago, uztail hondarrean, tindu eta eskultura erakusketa bat antolatua izan da posta agentziako gelan : Zoé Bray artistaren bi obra ikusgai ziren, hauek Lekumberry familiako bi amerikanoen portretak ziren. Horrez gain, herritarrei dei bat zabaldurik, Kittof Bordagarai, Michèle Larralde, Edith Trounday eta Marie José Arostegiren obrak ikusgai ziren bi astez. Azken egunean, hitzordu bat emana zen artisten ezagutzeko parada emanez baita Koldo Zuazoren lanaren deskubritzeko : hunek liburu bat argitaratu du, Ortzaize eta Baigorrialdeko euskarari buruz.

Horrez gain, kanpoko zinema gualdi bat antolatu dugu ere herriko plazan, autoeri zirkulazioa hetsiz. *Amama* filma ikusteko parada emana zen herritarrei eta interesatuei, kitorik, uztail hondarreko gau batez.

Azkenik, herriko etxeak elkarte guzietan galde bat helarazi die, animazio baten egiteko herriko plazan agorrilean. Eskola publikoko burasoen elkarteak, Ikastolako burasoen elkarteak eta Urzaiz elkarteak, gaueko merkatu bat antolatu zuten Herriko etxearekin batera. 30 bat sortzaile eta ekoizle bildu ziren plazan, giro alai eta goxo batean.

Jende andana bat bildu da ekitaldi horietan eta plaza animatzeko paradak izan dira, merexi duen lekua emanez herriko bihotzari, baina ere kulturari, euskarari eta nola ez, herritarren arteko harremaneri. Bildu arrakasta ikusirik, horrelako ekitaldien antolatzeko xedea dugu 2022 urtean ere bai.





## LIBURUTEGIA

2021 urtean, Herriko etxeak 100€ko aurrekondua erabili du haurrendako euskarazko liburuen erosteko. Liburu horiek liburutegian dira eta haurrek hartzen ahal dituzte. Horrez gain, hiru eskoletako haurrek segitzen dute liburutegira joaiten erregulariki edo liburuak ekarriak zaizkie eskolara, joaitea konplikatuegi baldin bazaie. Departamenduko liburutegitik eskuratzen ditugu liburuak, euskaraz eta frantsesez eta horiek aldatzen dituzte urtean hiru aldiz. Helduendako ere liburuak eskuragarri dira.

2022 urtean, liburutegi osoa posta agentziaren gelan antolatzeko xedea dugu. Behar diren armairu, apal eta materiala ezarri ondoan, Departamendutik 1.000 liburu inguru eskuratuko ditugu, haurrendako eta helduendako, urtean bietan aldatuko dituztenak. Liburu horiek hartzen ahalko dira kitorik.

## ERREKA GARBITZEA

Erreka garbitze eguna maiatzaren 24ean iragan da, Ugarzanetik Caharduraino, 4 taldek zeharkatu dute Laka. 40 jendek orotara parte hartu dute ekintza huntan eta ez usteko zabor zama bildua izan da. Bi erremorka beteko zituzten atera diren burdineri, plastika, hari eta beste hondarkinek. Goizaren bukatzeko, zintzur bustitze eta bazkaria eskainiak izan dira partehartzaile guzietan. Berriz ere egun hartako langile eta animatzaile guziaz eskertzen ditugu.




## JOSTAGUNEA

Bernadette Argainek eginen dautzue harrera asteazken eta ibiakoitze goizetan 10etatik eguerdira.

Jokoak mailegatzeko ahal dituzue, urtean 20€-ko urtesari bat hartuz familia, eta/edo bertan jostatzeko parada bada. Ttipientzat leku bat antolatua da. Joko guzietan eder hortan kopuruan hurbilduko zireztela espero dugu.

Eskolako garai guzietan, 3 eskoletako haurrek egun erdi batez jostatzen ahalko dira jostagunean, joko desberdinekin beren erakasleak lagundurik.

Urriaren 23an, ibiakoitzean, egurrezko kanpoko joko batzuekin animazio bat proposatua izan da. Handi eta ttipiak jostatu ahal izan dira kanpoan Ludo64 elkarteko bi langileren gidaritzapean. Holako ekitaldiak 2022an berriz izanen dira, otsaileko, apirileko eta urriko bakantzetan segurenik eskuare, eraikitze, kooperazio joko inguruan. Laster, xehetasun gehiago ukanen duzue.



## ELKARTEEN HITZA

### GARBI

Garbi elkarteak, Etxebestia, zinema gela, San Mixel ikastetxea eta ezker pareta kudeatzen ditu.

Aurten, lhauteri demboran, matahami zukratuak eta artobeltz taloak proposatu ditu.

Mendekoste asteburuan, aspaldiko Tripa Salda famatua berriz antolatu du eta arrakasta handia ukan du.

Bi animazio horiek 2022an berriz antolatuak izanen dira.

Urtean zehar, elkarteak udaleku, antzerki, bertsu, zirko, pilota ikastaldi eta mintzaldiak errezebitu ditu.



### BESTA KOMITEA

2020 urte bereziaren ondotik, besta komitea energia handirekin itzuli da, 2021 urteko besten antolatzeko. Hala nola, Ahaizemendiko zikiroa antolatu ginuen formula berrituz. Aurten, zikiroa jarriker serbitxatzea hautatu ginuen. Ortzaiako Bestak ere agorri hondarrean iragan ziren. Hor ere hainbat ekitaldi proposatu genituen : pilota partida, kontzertu, zikiro, haur joko, kantaldi... Besta komiteak eskertzen ditu aurten bestetara hurbildu diren herritar guztiak. Motibatzen gaitu ondoko urteak berdin animatzen. Helduden urte arte !!!



### GUTARTEAN

"Gutartean" batasunak 60 urtez goiti duten presuneri idekia da eta ehun bat kide biltzen ditu. Denen gutizia da memento goxo batzuen iragaitea eta jendarteko harremanen atxikitzea.

Zein dira gure zereginak :

- Hilabetero bi aratsaldez, aisialdiak proposatzen ditugu gizarte-joko batzuen inguruan atsalaskari batekin bururatuz. Horiek egiten dira Denen Etxean.
- Bertzalde apairu bazkari batzu noiztenka lekuko ostatuetan.
- Besta bat bazkari batekin Denen Etxean eta ere piknika bat guhaurek prestaturik.
- Egun oso bateko ateraldi kulturalak, piaiak autobusean eginez.
- Oinezkako ibilaldiak herrian barna eta ere inguruetan, egun osoa hartuz edo goizez.
- Informatika laguntza nahi dutenentzat gure idazkari trebatuarekin.
- Bertzalde herrien arteko adinekoen batasunak bi ateraldi urtero eskaintzen dauzkigu.

Herriko erretretatu guzietan galdegina zaiote gureganat hurbil daitezten ; eta haien odol berriari esker berrikuntzak asmatzeko esperantzarekin.

Kontaktua: Nanou idazkaria:

clubgutartean@gmail.com edo 06.81.52.80.60

## ORTZAIZE-ARROSAKO ESKOLA PUBLIKOKO BURASOAK

Ortzaize-Arrosako burasoen elkarteak, izenak dion bezala bi eskola publikoetako burasoak biltzen ditu.

Urte osoan zehar, ekitaldi ezberdinak antolatzen ditugu: maiatz lorearen salmenta maiatzaren lehenean, hiru urte guziz Lakako lasterkaldiko bazkaria, xokoleta salmenta Eguberriz, bainan ere



urtearen arabera, sehaska huste, loto... Bestalde, hauteskunde eguna den aldi oroz, bixkotx goxo batzu saltzen ditugu Herriko etxeen aitzinean bainan ere Arrosan hiru hilabete guziz egiten den merkatuaren karietara.

Uda huntan, Herriko etxeak sustatu lehen gaueko merkatuan parte hartu dugu, Urzaiz eta Ortzaizeko ikastolako elkarteekin. Gaualdi hori zinezko kausitze bat izan da eta herriko beste elkarte batzuekin lan egiteko parada izan da.

Larrazken huntan, haurrek Sarako euskarazko liburu azokara egin duten ateraldi pedagogikoa diruztatu diegu haundien mailako eta CE1 mailako ikasleeri. Arrosako Eguberriko merkatuan ere bixkotxak saldu ditugu.

Diru-laguntza pribatu eta herriko etxeen eskaintzik gabe, ezinezkoa izanen zitzaigun urteko ateraldiaren parte gehiena diruztatzea (Ziklo ateraldi bat egin beharra dute 2022ko maiatzean), ezinezkoa ere igeriketa saioen garraioaren segurtatzea (aste batez Baigorri ekain hondarrean), bainan ere ateraldi kulturalena (zinema eta ikusgarri elebidunak) edo eta erakasleek eraman proiektuer lotu ateraldiena.

2021eko agenda, handizki trabatua izan da Covidari lotu protokolo sanitarioeri egokitu baigira, eta hauek aktibitate edo proiektu batzuen arintzea behartu gaituzte, hala nola burasoen elkarteak osoki antolatu RPI-aren besta, bainan ere ezeztatu behar izan dugun urte hondarreko piknika.

Bainan urte huntako berri on batetaz ere oroituko gira, Ortzaizeko ama eskola euskara murgiltze eredura pasatu baita!

Arrosa eta Ortzaizeko hautetsi eta burasoek sustaturik proiektua abiatu zen ikasturte hastapenean, 2020eko irailean.

Helmugarainoko bidean, traba ainitz gainditu behar izan ditugu ekitaldi eta mobilizazio ezberdinekin. Azkenean Bordeleko akademiak onartu du gure galdea murgiltzea abiaraziz 2021eko irailean.

Berriz ere eskertu nahi ginuke burasoen eta Ortzaize eta Arrosako Herriko etxeen inplikazio azkarra, hauen hastetik bururako sustengurik gabe deus ez baitzen egingarria izanen.

Elkartearen bulegoaren zati bat arraberritu dugu. Andréa URRICARRIET-LANDABOURE eta Cristina SANCHEZ dira orain ko-lehendakariak, eta Sonia ETCHEVERRY-BORTHEIRY gure diruzain berria. Milesker haueri eta esker haundi bat ere Virginie LASCONATEGUY (lehendakari ohia) eta Edith CHIBRAC-i (diruzain ohia) azken urte hauetan egin duten ekarpenaz.

Bururatzeko eskertu nahi ginituzke Ortzaiztar guziak bainan ere Herriko etxea beren parte hartze eta laguntza baliosagatik. Ongi etorria egiten diegu ere bai elkartean sartu nahi duten buraso guzieri.

Kidetza urririk da eta bakotxaren parte hartzea garrantzitsua da, ahal duenaren heinean. Hori guzia umore ezin hobean!

2022 urteko, gure agiantzarik hoberenak luzatzen dizkiegu Ortzaiztar guzieri !

Ortzaize-Arrosako buraso elkarteko bulegoa

Kontaktua : [apeossesarrossa@gmail.com](mailto:apeossesarrossa@gmail.com)

## URZAIZ ELKARTEA

Urzaiz, 2019ko urte hastapenean sortu elkarteak, 17 kide kondatzen ditu aurten.

Bere ekitaldi eta proiektu guzietan, lehentasuna euskararen erabilpena eta euskal kulturari emaiten dio. Eskaintzen dituen aktibitateetan, elkarteak herritarren biltzea eta herriaren biziaraztea xede du. Helburu horiekin gogoan, Urzaiz elkarteak aurten ere proiektu ederrak eraman ditu.

### **Ezkilaren taupadan**

Herriko Etxeak bultzaturik, Ezkilaren taupadan proiektua Urzaizek bere gain hartu du.

Urte hastapenean kide multso batek kamera baten erabiltzeko formakuntza bat segitu du. Herritar batzuen lekukotasunak grabatuak izan dira eta filmaren muntaketa bide onean da. Laster ukanen dugu aurkezpen banda.

### **Gaueko Merkatua**

Herriko etxearen ekimenez, Urzaizek beste bi elkarterekin batera, hala nola Ortzaize Arrosa APE eta Ortzaizeko ikastola, gaueko merkatu bat antolatu du joan den agorrilean.

Uda huntako egunik iguzkitsuen izan da eta jendea nombrea hurbildu da hitzordurat. Hainbat artisau lan, lekuko ekoizpen, bai eta ere edari eta janari salgai ziren. Ezpeletako txarangak bazterrak alaiturik, giro airoa sendi zen plazan.

Diru sartzeak hiru elkarteen artean banatuak izan dira. Antolaketa aldetik, azpimarratzen ahal da giro onean arizan girela elkarlanean. Oihartzun onak ukan ditugu herritarren partez, berriz egitekoa!

### **Haurren dantza kurtsoak**

Irailezkioz, Urzaiz elkarteak proposatzen ditu dantza kurtsoak haurrentako. Asteazken atsaldetan iragaiten dira, Denen Etxean. Lehen urtea dela eta, 32 haurrek izena eman dute. Bi taldez zatituak dira, 17 haundi eta 15 ttipi. Kurtsoak biziki untsa pasatzen dira Joana Erdozaintzi Etxart erakaslearekin.

### **Larrain dantza**

Haurren dantza kurtsoetaz bestalde, Herritarrek Larrain Dantza ikasteko aukera ukan dute. Proposatutako izan dira bi oreneko lau kurtso, Iruñako 3 erakasleek animaturik.

Aritz Ibañez Lusarreta, Ihitz Iriart eta Leire Lezarekin, 30 bat lagunek deskubritu eta ikasi dute dantza famatu hau. Giro onean iragan dira kurtsoak. Aldi guziz, bukatzeko Urzaizekoek gualdi goxo bat partekatu dute dantzari guziekin.

### **Bertso saioa**

Agorrilaren 13an, Bertsolarien lagunak elkartearekin, bertso saio bat ere proposatu dugu Zinema gelan: Mizel Mateo, Oier Urreizti, Aitor Servier eta Karlos Aizpuruarekin. Arratsalde hondar goxo bat, hor zirenek preziatu dutena.

### **Gartxot gualdia**

Euskararen urtarorearen kari, filma proiektzio bat antolatu du elkarteak. Ortzaizeko zinema gelan herritarrek Gartxot filma ikusi ahal izan dute, frantses azpitoluekin. Ondotik Asisko Urmenetak hitza hartu du eta xehetasun ainitz ekarri dauzkigu filmaren egiteari buruz.



### **Eta Kabalkada zer ?**

Hainbeste lan eraman eta, hainbeste jende elkartu eta, ezin plazaratuz alta.

Ez badugu orain arte egin ahal izan, ez da Kabalkada plazatik haiztua izanen hain errexki, bainan noiz iraganen den ezin erran preseski.

Segurtatzen dautzuegu gure motibazio, gogo eta pindarra hor direla lehen egunean bezain kartsu.

Nork daki zer ekarriko daukun 2022 urteak ?

Gure proiektuari edo elkarteari buruz xehetasun gehiago nahi baduzue, edo kide sartu nahi baduzue, ez duda, igor mail bat [urzaiz.elkartea@gmail.com](mailto:urzaiz.elkartea@gmail.com) helbidera.

# ENJEU BIENVEILLANTS ETA J'HARMONISE MON UNIVERS

2021ean, En-jeux bienveillants eta J'harmonise mon univers elkarteek beren gaitasunak uztartu dituzte hiru animazioren antolatzeko haur eta burasoentzat:

- Agorrilaren 28an, Ortzaizeko besten kari, txontxongilo ikusgarri bat ibiakoitz arratsaldez.
- Urriaren 31n, Halloween besta, txontxongilo, joko, dantza eta atsaskari batekin.
- Abenduaren 12an, argazkiak Olentzero eta bizar xurirekin, bainan ere yoga eta ipuin irakurketa Menta liburutegian.

Animazio horien arrakasta ikusirik, 2022an hauen berriz egitea erabaki dugu, beste berri batzuer ere gogoetatuz!



## ORTZAIZEKO IKASTOLAKO BURASOAK

Ortzaizeko ikastolak, Ortzaize, Irisarri, Suhuskune, Iholdi, Bidarrai eta Arrosako ikasleak errezebitzen ditu.

68 familiz osatua da, 88 ikasleekin. Heien artean, 24 ortzaiztar haur dira. Ekainean, urte hunderreko besta bere 35 urteak ospatu ditu. Egun hartan, haurrek euskal mitologiari buruzko agerraldi ederra presentatu zuten. Ikastola kontratu pean den eskola bat da, buraso bakotxaren inplikazioa beharrezkoa da untsa ibiltzeko. Horregatik, buraso bakotxa komisio batean sartzen da : bulegoan, besta taldean, obretan, heziketan, garapenan, egoitzan, integrazio batzordean, webgunean, euskaraz bizin, herri urrats, ikastolen kontseiluan edo mendikletan. Urtean zehar, denboraldi zail bat izan arren ikastolak ekitaldi zonbait antolatu ditu hala nola : burger gauldi bat, mendikleta lasterkaldia, pizza gauldi bat eta urte bukaerako besten karietara xanpain salmenta bat. Integrazio batzordearen alde, ondoko herriko ikastolekin Baigorri brikabak antolatua izan da. Horrez gain, herriko etxeak bultzatu ekitaldietan parte hartu du. Hala nola agorriean iragan den gaueko merkatuan beste herriko elkarteekin batera eta eguberrko bakantzen bezperan Olentzerori ongi etorria eginez. Ikastolan berean, euskararen erabilera sustatzeko animazio desberdinak antolatuak izan dira : zinema gauldia, ipuin kondaketa eta liburu salmenta bat Menta liburu dendaren partaidetzarekin.

2022ko maiatzaren 7an iraganen den Herri Urrats ekitaldiaren antolaketan parte hartzen du Ortzaizeko ikastolak. Xehetasun gehiago nahi baduzue, ez duda buraso batengana hurbiltzea. Gure ikastolako berri guztiak ikusgai dira webgunean : [www.ortzaizeko-ikastola.net](http://www.ortzaizeko-ikastola.net).

## ORTZAIZE-ARROSAKO BETERANOAK

2019ko abenduaren 5ean, Donazaharren bilduak ziren gerlari ohien aitzinean, ene gisara interpretatu nuen ministeritzatik etorri diskurtso bat, René Irigarayen ohar batetatik abiatuz : « AFN-ean hildako gure lagunak gorputzak Frantziara itzuli direnean, ez dute nazional mailako omenaldirik ukan... »

Garaian, gure arbasoek, haiengan dutan kontsiderazio osoa oroitaraziz, beren engaiamendua bururaino eraman dute, Afrikarren kantuak dioen bezala hemen utziz beren familia, etxe eta beste.

Heroismoa lehen lehenik engaiamendu bat da, Maliko Barkhaneko soldaduak bezala.

Komunikabideek urte osoan heroien aipamenak egiten dizkigute, batzuek dutelarik besteak baino merezimendu gehiago. 14-18, 39-45, Indoxina, Ipar-Afrkikako edo atzerriko operazioetako soldadoa ez dira herotzat hartuak, engaiamendu bat dute soilik hartu, beren kontzientziarekin. Errespetua...

Memoria lana dela aipu, 1918ko azaroaren 11ko eta 1945eko maiatzaren 8ko komemorazioak egin ahal izan dira duintasunez, Herriko etxearen sustenguekin Eliza hetsia izanik ere eta murrizketa sanitarioak jasanik ere.

Aktualitatera itzultzeko, Ortzaize eta Arrosako gerlari ohiak, berriki bilduak dira orain ORTZAIZE-ARROSAKO BETERANOAK elkartearen.

Elkarte berri hau kudeatzen dutenek (Anne-Marie Taziet, Serge Klieber eta nihaur), desiratzen dauzkitzuegu urte hondarreko besta goxoak eta ahalik eta osagarririk onena. Besteak segituko du.

Peio Bouquet koronela

## Laguntzen emaitza

Aurten ere diru laguntzak emanak izan dira.

- Haur elbarritu bat duten familiei
- Sortu berri bat duten familiei
- BAFA pasatu nahi duten gazteei, animazioa segurtatzeko aisialdi zentroetan

## Landalab esperimentazioa Ortzaizen

Mugaz gaineko BERTAN proiektuak (Europar Eskualdeko Garapenak partez diruztatzen duena) estrategia berriak garatzen ditu xahartze aktiboaren inguruan lurralde mailan, mugaren bi aldetan.

Hola da sortu Landalab dispositiboa.

Landalab esperimentazioak, etxean egoiteko ahala eman nahi die elbarrituei edo adinetakoei, zainketa sistema bat antolatuz. Inguruko eta ezagun jende batzuek dute zainketa segurtatzen.

Hiru Ortzaiztarrek onartu dute esperimentazio hortan sartzea eta hurbileko bost pertsona (familia edo auzo) dituzte « begiraleak ». 2021eko buruilean hasi da gure herrian.

Landalaben helburua da jendearen etxean atxikitzea ahal bezain luzaz eta bizi baldintza hobegotan.



## Eguberriko poltsa

Urte hondarrean, HZS-eko kideek eta kontseilariek, tokiko mozkinaz osaturik den poltsa bat banatu diete 80 urtetik goiti zuten adinekoei.

## Adinetakoen bide arriskuei sentsibilizatzea

Departamenduko Bideetako Prebentzio Komiteak animazio bat antolatu du abendoaren 10ean. Dotzena bat jendek parte hartu dute. Gai anitzetaz azalpenak eman dira eta egoera arriskutsuak ikusi ahal izan dira 3 dimentsiotan : nori utzi lehentasuna, pankarta berriak, itzulguneak, adinari lotu problemak, erremedioen efektuak gidatzen delarik, atentzioa galarazten dituzten gauzak...

## Herriko Etxeak eskaini apairua 65 urtetik goiti dutenei

Abendoaren 16an iragan da Etxeko Borda ostatuan. 49 Ortzaiztar bildu dira Edith eta Panpik prestatu bazkari goxoaren inguruan, neurri sanitarioak errespetatuz.

## AIGA

HZS-k 100€ laguntza beregain hartzen du Ortzaiztar gazte bakotxarentzat, bere AIGA formakuntza pagatzeko.

## ELIZAREN BISITA

Ondareizula proiektuaren barne, animazio berezi bat proposatua izan da herriko hiru eskoletako haurreri, elizaren historia, arkitektura baita obren mundua deskubriarazteko. Herriko ondarearen inguruan, herriko haurreri, interesaren sortzeko parada emaita zen helburu nagusia, animazio bat proposatuz euskaraz, gure arrangura handiena gure ondarearen transmisioa delarik.

Joan den udaberrian, proposatu dugu beraz eskola bakotxari Ospitalea ondarea zentroko animatzaileekin egun baten segitzea : elizaren historiari buruz informazioak jaso dituzte, xantierra bisitatzeko parada ukan dute eta ofiziale batzuekin mintzatzeko okasionea izan da. Horrez gain, erretaula berritzaile eta tindatzaile artista batekin, obra bat egin dute, hau da elizako eskailen azpiko partearen dekorazio bat. Elizako obrak arras bukatuko direlarik, hiru eskoletako haurrek egin dekorazio hori instalatua izanen da eta ikusgai publikoarenganik.

## KLIMAREN ASTEA

Euskal Hirigune elkargoan deliberatua izan da urriaren 11tik 17a arte klimaren astea izanen zela eta kuadro hortan kokatzen da Herriko Etxeak hiru eskolei egin dien proposamena.

Gure asmoa zen Zubialde auzoan den lur zati batean zuhaitzak landatzea. Lur zati hori zikina zen : behin garbitu eta, lur garbia eman zaio eta azkenean gure esku izan da.

Lan hortan parte hartu duten haurrak 100 inguru ziren, 3 eskoletakoak eta 5 taldeetan zatituak.

Haien lanak hauek izan dira : zuhaixkak landatzea, haien zangoak lastotzea, belar hazia hedatzea, jauzi eginez lurra tinkatzea, atera harriak kentzea eta azkenik ziri bat norberaren izenarekin lurrean sartzea.

Zubialdeko etxe multzoan sartzean, 100m luze eta 4m zabal dituen lur zirriztan, gaurregun, 80 zuhaixka ikusi daitezke : haien artean ote, jats, gorosti, hurrondo, mizpirondo, ilarka etabar... 18 mota orotara. Gainera, ez dira nola nahika kokatuak, auzoan den jakintsun baten plano eta aholkuak segitzen entseatu gira.

Azkeneko euriek berdatu dute eremua eta zuhaixkek neguko itxura hartu dute.



## OLENTZERO GAUA

Abendu erditsuan, Herriko etxeak sustaturik eta andereñoekin elkarlanean Olentzero gaua antolatua izan da herrian, herriko hiru eskoletako haurren parte hartzearekin. Ikazkin famatuari ongi etorria egina izan zaio Hartzako karrikan gelan ikasi kantu, dantza eta musikak lagun. Gualdi hori kausitze bat izan da hiru eskoletako haurrak bildu baitira proiektu amankomun baten inguruan, euskal kulturako pertsonaia ospetsu horren ezagutza eginez.

## JANTEGIA : EGALIM LEGEA

2018ko urrian bozkatua izan den Egalim legea, 2022-ko urtarrileko jantegietan plantan eman beharko da. Neurri nagusienak dion arabera, apairu bakotzak %50a kalitatezko eta sare iraunkorretik heldu diren ekoizpenak ukan beharko ditu, haietan, %20a mozkin biologikoak izan beharko dute. Laborariak untsa bizitzea eta janari sano eta iraunkorra hedatzea deneri ditu helburu gisa .

Lege horrek xahutzearen eta plastikaren kontra aritzeko xedea du baita ere.

Suharik egin proposamena onartu dugu, haurrek ekoizpen biologiko bat eta lekuko mozkin bat egunero jan dezaten bederen .

Horrek, ondorio bat ukanen du apairuen kostuan, 20 zentimako emendaketarekin, Herriko etxeak bere gain hartuko duena ikasturte bukaera arte, erran nahi du 2022ko uztaila arte.

2022ko irailetik goiti, 20 zentimako emendakina hori zuen fakturretan agertuko da, erran nahi baitu gutti gora behera 3 euroko emendaketa izanen dela hilabeteka.

Elgarrekin, kalitatezko janaria segurta dezagun gure haurreri eta lekuko laborariak sustenga ditzagun.

## NUMERIKOA

2021eko hastapenean, gobernuak sustatze plano bat proposatu du numeriko hausteari aurre egiteko. Herriko etxeer proposatzen zuen lehen hezkuntzako eskola publikoer oinarrizko tresna numerikoak (ordenagailua, tableta, bideo-proiektatzailea...) eta zerbitzu eta baliabide numerikoak eskaintzea. Herriko etxeak aldeko erantzuna eman zion proposamen horri. Beraz, eskola publikoak, bideo-proiektatzaile bat, ordenagailu eramangarri bat eta Ipad delako bat ukan ditu, planak %70a eta Herriko etxeak %30a pagatuz.

Herriko etxea eskola pribatuentzat ere, proiektu ekarlea izaiten ahal zen, gehienez, Eskola Publikoarentzat egin gastuen neurri berean. Tresna numerikoa herriko eskola guzietan emaitako, Herriko etxeak Eskola pribatua eta Ikastolari informatika tresnak diruztatu dituzte beren beharren eta eskaeren arabera. San Mixel eskolak 3 ordenagailu ukan ditu eta Ikastolak ordenagailu bat eta bideo-proiektatzaile bat.

Tresna horiekin, kontent izanen direla espero dugu.

## ESKOLEN HITZA

### ESKOLA PUBLIKOA

2020/2021 ikasturtean Ortzaizeko eskola publikoan 44 ikasle errezibitu ditugu ttipien mailatik CE1 maila arte. Urtean zehar proiektu desberdinak ereman ditugu eskolan.

Elgar bizitza lantzeko « Adixkidetasun arbola » sortu dugu eta entseatu gira urtean zehar ikasi gauzen baliatzen ,hitz goxoak eta eztiak erranez eta trukatur...

Eguberri ospatu dugu eskolan, kantuak emanez, askari goxo bat partekatuz elgarrekin baina burrasorik gabe. Kanpoan egin dugu, biziki goxo zen! Urte berria untsa hasteko, errege bixkotxa partekatu dugu, denak ere gormantak baigira eskolan ...erregeak izan dira eta erreginak ere !

Aurten, Arrosako eskolarekin proiektu amankomun bat ereman dugu. Hizkuntzan, deskripzioa landu dugu euskaraz eta frantsesez. Ttipiak eta artekoak mozarrotu dira: xapel desberdinak ezarriz, kolorezko lunetak eta lepoko desberdinak. Anitz argazki hartu eta, lagunen deskribatzen ikasi dute.



Haundiak, CP-koak eta CEI-ekoek aurpegi batzu eraiki dituzte eta deskribatzen ikasi ; Arrosako haundiek gauza bera egin dute baina arteari lotuak diren aurpegi eta itxurak deskribatuz. Proiektua bukatzeko liburu numerikoak « Book creator » delakoak eraiki ditugu gure lana etxekoekin partekatzeko. Urtea bururatu dugu piknika bat antolatuz burrasoekin « Laka » ur bazterrean. Xantza ukan dugu, denbora ederra zen eta goxo zen !



## SAN MIXEL ESKOLA



Ikasturte berri bat iragan da San Mixel eskolan eta krisi sanitario egoera hortan, beti eta arreta handiagorekin haur bakoitzari egokitzen gira, haien erritmoa errespetatuz ; baita ere haien berezitasunak eta ezberdintasunak kondutan harturik.

Egunerokoan, balore giristinoak bizitzen ditugu : elkar laguntza, kooperazioa, errespetua.

Denen artean, proiektu ezberdinak eraman ditugu eskola biziarazteko : haur, erakasle, langile, famili , OGEC (Organisme de gestion) eta APEL (Guraso elkarte) -en boluntarioekin.

Eskolako elkarteek animazio ezberdinak proposatzen dituzte (Bixkotx salmenta, « ball-trap » delakoa erakasleen proiektuak sustengatzeko. Aurten bildu duten diruari esker Montessori materiala osatu dugu, landareak landatu ditugu eskolako baratzean, ateraldiak (pizina, zinema) egin ditugu eta kolegiara joan diren haurrek ukan dute opari ttipi bat.

2021/2022-ko ikasturtea untsa hasteko, bidaiia eder bat egin dugu, « Puy-du-Fou »-ra joan baikira eta beste proiektu batzuekin segituko dugu, besteak beste antzerki eta kantaldi bat primaderan. Gure eskolan, amaeskola murgiltze sisteman proposatzen dugu eta CP-tik goiti denbora erdiz frantsesez eta euskaraz.

Euskara ikasteko eta bizitzeko sukaldaritzaren bidez nozio ezberdinak lantzen ditugu baina erran gabe doa, gehien maite duguna dela, egin ditugun gauzak jatea !

Kalitatezko material numerikoarekin lan egiten dugu eta sare sozialen arriskuak aipatzen ditugu. Amaeskolan hautatu dugu Montessori tailerrekin lan egitea, haur bakoitzaren erritmoa ahal bezainbat errespetatzeko. Nahi baduzue pedagogia hori ezagutu eta bizi, gure ateak idekitzen dizkizuegu eta proposatzen ahal dizuegu gure gelara jitea. Harremanetan sartzeko : 05.59.37.78.58 deituz edo mailez [ecole-st-michel64@orange.fr](mailto:ecole-st-michel64@orange.fr).

Plazer handia izanen da guretzat zien ezagutza egitea baita ere gure eskola presentatzea.

## ORTZAIZEKO IKASTOLA

Ortzaizeko ikastolan 2020/2021ean 90 ikaslerekin bukatu genuen ikasturtea. Eta aurtengo ikasturtea 89 ikasleekin hasi dugu.

Urte guziz ate-idekiak antolatuak dira : ikastola ikus daiteke gelaz gela eta ikustera jiten diren burasoek irakasleei parada badute galderen pausatzeko pedagogiaz, haur hezkuntzan eta lehen mailan zer egiten den, nola egiten den, zer proiektu lantzen diren...

Burasoen ordezkariak ere egun hortan ikastolan egoten dira ikastolaren ibilmoldea azaltzeko. Ondoko ate-idekiak 2022ko martxoaren 8an iraganen dira.

2020 / 2021eko urteko proiektua: euskal mitologia.

Urte guzian Euskal-Herriko mitologiako pertsonaiak eta leiendak landu genituen ama ikastolan eta lehen mailan. Horren bidez, ikasleek ukan zuten hor gure mitoen ezagutzeko edo sakontzeko parada gure kultura hobeki barnatuz.

Proiektu hau beste aitzaki bat izan zen aho adierazpena lantzeko, gelen arteko aurkezpen eta trukaketak bultzatuz.



Aspaldiko mito horiek leku batzuekin lotzeko, estakuru ezin hobea ikastolatik ateratzeko eta leienda horien entzuteko beste aditu batzuen ahotik, ingurumen hurbil eta naturalean.

Euskal mitologian oinarriturik ateraldiak antolatu genituen:

2. eta 3. zikloan Irisarriko Ondare Hezkuntza Guneko animatzaile baten laguntzarekin Irisarriat eta Kanbo Elorrimendirat joan ginen.

Beste ateraldi bat antolatu genuen, Panpi Olaizolaren laguntzarekin oraikoan, Ezpeleta Pinodieta gunetik Ainhoako kaperaraino. Bidean goxatu genituen berak kondatu ipuin mitologikoak, toki berezi batzutan geldituz eta bidenabar tokiko naturari buruzko hainbat xehetasun azaldu zauzkigun : landare, zuhaitz ... izen anitz zehaztu eta lotura batzuk egin zizkigun mitologiako ipuinekin.

1. eta 2. ziklokoekin Baigura aisialdi gunera joan ginen, kaskoraino trakturrez iritsi ginen Tartaloren arrastoak segituz.

3. hiruhila osoan, adin guzietako haurrak nahasirik, gaia landu zuten antzerkiaren bidez Jokin Irungaraien laguntzarekin. Ekain hondarreko ikusgarri bat prestatu, burasoen aitzinean antzeztu eta kantatu zuten.


Agian hemendik goiti, Marik, Basajaunak, Basanderek, Tartalok, Galtxagorriek ... haurren irudimena piztuko eta ametsak beteko dituzte!

# ELIZA

Elizaren arraberritze lanak bururatzen ari dira. Urtarril huntan bukatuak behar lukete.

13 hilabete lanen ondotik, plaza, hilerriak eta eliza berriz baliatzen ahalko ditugu lehen bezala.

Eskertzeko langile, auzo eta laguntzaileak, estrenaldia egingen da martxoaren 5 eta 6eko asteburuan. Ortzaitar guziak komitatuak izanen dira.



## ONDAREIZULA

Herriko ondarearen baloratzeko eta biziarazteko pentsatua den programa hau, 2021 urtean zehar, elizari interesatu da, eraikuntza horrek jasaiten zituen obrak estakuru. “Ezkilaren taupadan” deitu dugu ziklo hori eta ekitaldi ezberdinak antolatu ditugu urtean zehar, 2020 hondarrean hasi direnak. 2021 urtean, hiru eskoletako haurrei animazio bat proposatu dugu elizaren inguruan (ikus Eskolen artikulua) eta horrez gain, elkarteei dei bat egin dugu, filma parte hartzaile baten egiteko. Urzaiz elkarteak erantzun du dei horri eta beregain hartzen du filma horren egitea. Herritar guziei proposatua izan zaie bideo formakuntza baten segitzea, Kanaldudeko laguntzaileek emanik. Horren ondotik, ibili dira herriko pertsona batzuen galdezkatzen beren harremanaz elizarekin, beren oroitzapenetaz, erlijioaz, obretaz, ezkilaz, eraikuntzaz etabar. Orain, muntaketa lanetan ari dira Kanaldudeko egoitzan Bidarrain. 30 minutu inguruko filma proposatuko daukute, lehen aldiko ikusgai izanen dena elizaren estrenaldi egunean. Horrez gain, elizako dorrean atxemana izan zen XVIII. mendeko ezkila ttipiarentzat, babes galde bat egin da, iraultza aitzinekoa delako eta horrelakoak arraroak direlako. Monumento historikoen zerrenda gehigarrian agertzen da beraz orain ezkila hori. 2022 urtearentzat, “Ezkilaren taupadan” ziklo horren bukaerari buruz joanen gira, elizaren inguruan egin lanaren arrastoak eraikiz, eskuragarri izan ditezten, herritarrenganik, biharko haurrenganik, baita interesatzen diren guzienganik. Oroitarazten dizuegu Herriko etxearen webgunean, jadanik eskuragarri direla informazio zenbait elizaren historiari buruz, baita bere arkitekturen buruz eta batez ere, filma bat ikusgai dela, elizaren irudiekin. Gose gabe jatekoak diren dokumentuak dira !

## DIAGNOSTIKOA

EHLG-k herriko laborantzaz eginiko diagnostikoaren aurkezpena abenduaren 3an iragan da. 40 herritar eta laborari inguru bildu dira. Aurkezpena eta gero hitza publikoari emana izan zen. Hitzaren hartzea hastapen batean erretxa ez bazen izan ere, ondotik egin ziren galde eta eztabaidek erakutsi dute komisioren irekitzearen beharra badela proiektuak aitzina eramaiteko.

Gogoia baldin baduzu herriko laborantzaren biziartzeko eta taldean lan egiteko ez dudu komisioko bat edo bestean izena emaita.

Huna izaiten ahalko diren komisioko ezberdinak: mendia, Baigura mendi elkarte, transmisioa, gazte taldea (laborari edo proiektu bat duena hurbiletik edo urrunetik), su kudeatze taldea. Izen emaitak: [laborantxa@ortzaize.eus](mailto:laborantxa@ortzaize.eus) edo herriko etxeari zuzenki deituz.



## METANIZAZIOA

Euskal Herri elkargoak jakinarazi du bere Klimaren Planoan dituen xedek autonomia energetikoan, metanizazioan ere gogoetatzeko prest zela.

Proposatu diegu gure herriko laborariek dituzten hongarriak metano iturri bat izaiten ahal zirela.

Erabaki dute estudio bat egitea negurtzeko errealki, gure herrian, zoin metano hobi den.

Estudioa ondoko hilabeteetan abiatuko da eta egokitasun inkesta Agrobiomasse estudio bulegoak eramanen du, IENER eta Euskal Herriko Laborantza Ganbarekin.

Joan den uda hondarrean, etxez etxe pasatu gira bakoitzari bere helbide berria jakinarazteko.

Hori aitzin lan handia eraman dugu bide eta etxe izenen lantzen, ahal bezain egokiak izan dituen lekuko toponimiari eta euskal ortografiari. Ondorioz, euskararen idazkera normen errespetatzea erabaki dugu, hemengo euskaratik eta agian zuen nahietatik sobera urrundu gabe. Besteak beste, Xarles Videgain euskaltzainaren aholku hauek baliatu ditugu :

“1-Mintzaira guzietan hitzak ez dira berdin idazten eta ahoskatzen. Ahoskatzeko eta idazteko manierak berezten direlarik, hautu bat egin behar da.

Frantsesez obtenir idazten dugu bainan optenir diogu ohartu gabe.

Lagun batek «jiteintz ? » dio baina « jiten hiz ?» idatz genezake.

Gauza bera gertatzen da leku izenetan, etxe izenetan, jende izenetan. Konparazione, « aitain » erraiten da ; baina « aitaren » idatzi behar litaik -r- hori anitzetan erortzen ohi baita. Beraz Xidroinia, Tipiainia, Puttikoinia eta mota hortako beste ainitz izen zaharrek -r- hori galdu ondoan, berriz bildu behar lukete beren iturriari leial egonez : Xidroirenea, Tipirenea, Puttikorenea.

2-Euskarak bere ortografia kanbiatu izan du joan den mendean eta aitzinekoan. Lehen q, qu edo c idazten zena, egungo egunean k batez adierazten da. Oker idazten da eta ez oquer.



Kanbiamendu hori gertatu zelarik, izan zen euskaldunik erraiteko euskara « kakastatu » nahi zuela ortografia berriak. Denboraren poderioz, jabaldu dira gauzak.

Beste puntu batzu aldatu ziren ortografian -Ch- eta -tch- eman ordez, -x- et -tx- hautatuak izan ziren eta -y-aren ordez -i-. Horrela kanbiatu zen Goyheneche, Etchebarne izenen itxura.

3-Gramatikak ere bere ziria sartzen du ortografian. Izen bati -a- marka emaiten zaiolarik, adibidez seme+a, semea idazten da baina ahoz, semea, semia, eta Maule aldean semi erraiten da. Eta arrazoinik ez da ahoskatzeko manera horien uzteko. Bego mintzatzeko manera bere horretan.”

Eskertu nahi dugu ere Jean-Baptiste Orpustan herritarra, etxe ta bide izendatze hortan ekarri laguntza baliosarentzat.

Helbide horien gaitasuna Herriko etxearena izanen da oraitik goiti, erran nahi baitu berak duela eskua helbide berrien sortzeko, moldatzeko edo kentzeko. Horretarako, logiziel bat plantan ezarria du Euskal Hirigune elkargoak, Isigéo logiziela, herri bakotxa bereganatzen ari dena denbora hauetan. Logiziel horretan sartuko diren helbideek, base bat osatuko dute, idekia izanen dena sare ezberdinen enpresei (Orange, Sfr, Free etabar, bainan ere Enedis, Enargia etabar) edo/eta kadastrari, IGN-ari, GPS erabiltzaileei, Postari, zerga zerbitzuei eta beste hainbat zerbitzueri. Ondorioz, base horretan sartu helbidea da izanen ofizialki onartua eta erabilia. Hori guzia plantan ezartzeko denbora, pazientzia pixka bat hartu beharko dugu denek...

Horrez gain, aipatu bezala zuetariko bakotxari, panoen manaketak lantzen ari gira, ahal bezain fite eginarazteko eta pausatzeko, 2022 urtean zehar.

## ARTXIBOAK

2021ean, herriko artxiboen sailkatze lana eginarazi dugu departamendu mailako artxibisteri. Hauek, herriko artxibo guztiak begiratu dituzte, iraultza aitzinetikakoak, gaur egunerainokoak arte, banan-banan. Aztertu ondoren, sailkatu dituzte kutxa desberdinetan eta zerrenda bat osatu dute zein dokumentu baden adierazten duena. Gaur, biziki argiki jakiten ahal dugu beraz zerk osatzen duen Ortzazeko herriko artxiboen fondoa eta biziki errexki atxemaiten ahal da nahi den dokumentoa. Sailkatze norma hori erabilia izanen da oraitik goiti ekoizten diren dokumentoen sailkatzeko ere, ahal bezain luzarora, artxibo horiek erabilgarriak izan ditezten errexki. Horrez gain, artxiboen babesteko, gela sanoetara pasatu ditugu, baita deshumidifikazio tresnak ezarri ere. Artxiboen ardura Herriko etxeko betebeharretan denez, baitezpadakoa iduritzen zitzaigun herriko ondare horren babestea eta baloratzea.

Artxibo horien parte bat publikoarenganik kontsultagarria da. Xehetasunen jakiteko, herriko webgunera sar zaitezke edo Herriko etxera dei dezakezue. Egina izan den zerrendaren bidez, errexki jakiten ahalko da nahi duzuen dokumentoa baden eta nun. Horien erabilgarritasuna anitzez hobetu da beraz lan horri esker.

## IGUZKI PANELAK EZKER PARETAREN TEILATUAN

Iguzkitako panelak laster ezker paretaren teilatuan ikusten ahalko dira. IENER enpresak estudioa eraman du eta permisa ukana da. Laster obrak hasiko dira.

Iparraldean energia berriztagarria sortzea eta energia autonomiara heltzea, ditu helburu enpresa gazte hunek. Hortako, ezker paretako teilatua bere esku ezarri diogu eta alde berean administrazio, antolakuntza baita finantzamendu buruzko ardurak bere gain hartzen ditu.



## XARTA

Tokiko Xarta, eskualdeko hizkuntza gutituen Europar Xartaren bertsio bat da, Europar Kontseiluak lekuko eta lurraldeko kolektibitateentzat moldatu duena.

Europako kontseiluak, tokiko hizkuntza guttituen aldeko Xarta hori sortu du hizkuntza horien gerizatzeko eta sustatzeko. Jadanik onartua izan da herrialde edo hiri zonbaitzuetan (Alsace-Lorraine-Champagne-Ardenne, Haut-Rhin, Bas-Rhin, Mulhouse, Strasbourg...) 2014-15az geroz. 2021ean, Itsasuko herriak deliberatu du desmartxan sartzea, euskarari bere leku osoa emateko. Ondotik, gomita luzatu die beste herriei. Gaurregun, 45 herri inguruk parte hartzen dute proiektu kolektibo hortan.

Engaiatzen den kolektibitateak hautatu behar ditu xartako 35 xede 49en gain. Xede horiek bizi publikoko alde anitz hunkitzen ditu : irakaskuntza, justizia, zerbitzu publikoak, prentsa, kultura, bizi sozial eta ekonomikoa, mugaz gaineko harremanak...

Garrantzitsua iduritu zauku Ortzaizeko herria engaia dadin egitasmo horretan euskara azkartzeko eguneroko bizian. Jadanik egin dugun bezala murgiltzea sustengatuz eskola publikoan, karriken izenak euskaraz emanaz edo komunikazioan.

Horretarako, heldu den urtean, euskara sustatzeko, Europako ordezkari baten aitzinean Tokiko Xarta izenpetuko dugu.

## HOBEKUNTZA PLANOA

Euskararen aldeko engaiamendua gogoan, Herriko etxeak "Hobekuntza plana" deitu hitzarmen bat izenpetu du Euskal Hirigunearekin. Hunen bidez, Herriko etxeako idazkariak euskara hobetzeko formakuntza bat abiatuko du 2022 urtean, egun erdi bat astero, urte osoan. Bestalde, Euskal hiriguneko euskara itzulpen zerbitzua erabiltzen ahalko dugu usuxago, elebitasuna garatzeko herrian.

## ABENDUKO ANIMAZIOAK

Abenduaren 3a Euskararen nazioarteko eguna izanki, Herriko etxeako Euskara lan-taldeak animazio pare bat antolatu du, ipuin irakurketa eta kantu animazio bat proposatuz haurrentzat Menta kafe liburutegian bai eta ere bi antzerki eskainiz herriko zinema gelan. Bi animazio horiek arrakastatsuak izan dira, eta euskara belarriratzeko parada ezin hobeak.



## GARBI ETA HERRIKO ETXEAREN ARTEKO ELGARRIZKETA


Badu urteak eta urteak, herriko giroa Garbi elkartearen inguruan diren eztabaidek samintzen dutela. Herriko etxe baten egin beharra da giro horren baketzeko egin ahalen egitea. Ildo horretatik dugu konponbide baten bidea ideki, proposamen zehatz bat eginez Garbi elkarteari, haien jabe diren bastimendu horien arraberritzeko gisan, herritar guzien zerbitzuko emanek. Lehen bilkura bat egina izan da Garbi elkartearen Administrazio kontseiluarekin. Bideak luzea izan behar badu ere, sinesten dugu aterabide batera heltzen ahal girela, bakotzak borondate ona erakutsiz eta izpiritu positibo batekin jokatzuz. Solasaldiak aitzinatu arau, hauen berri emanen dautzuegu.



Lokala birziklategia berriz idekitzen da Irulegin! Hogoita hamar bat laguntzaileeri esker idekia da : astelehen eta ibiakoitz goizetan 10etatik 13ak arte eta astezkenetan 10etatik 13ak arte eta 3etatik 6ak arte. Tenore eta egun horietan puskak uzten ahal dira ekarpenen xokoan eta eros litaizke gauzak prezio apaletan.

Lokala Birziklategiak lau funtzio baditu: biltzea, balioa berriz harraraztea, berriz banatzea eta sentsibilizatzea. Horien bitartez, Lokalak bere lekua atzeman du, tokiko eragile gisa, baztertuak diren gauzak, berriz baliatzeko. Hola, hondakinen murrizteko xedea duten politika publikoak gauzatzen lagunduko ditu.


Laguntzaile izaiteko, kidegata egiteko edo sinpleki berri gutuna ukaiteko, izena eman dezakezu webgune bitartez :[www.lokala.eus](http://www.lokala.eus) edo [idatzizcontact@lokala.eus](mailto:idatzizcontact@lokala.eus) helbideari.



## HILERRIA

Eliza inguruko hilerria hustean elizaren obrak hasi zirelarik ohartu ginen hilobi frango ez zirela baliatuak. Herritar baten galdera batetik joanez deliberatu dugu hilerraren plana berriz egitea. Lan horren eramaiteko zerrendatuko ditugu bisitarik gabe edo aspaldian erabiliak ez diren hilobiak. Omiasaindu aitzin, pano batzuk ezarriak eta sei hilabetez utziak izanen dira hilobi horietan. Kasu hortan baizizte edo xehetasunak baldin badituzue markatuak diren hilobier buruz milesker Herriko etxeari helaraztea.

Gure eliza arraberritu horrek hilerrir eder bat merexi duelako Patricek berriz harriztatu du hilerrir guzia.



## JENDE KONDAKETA

Oroitarazten dautzuegu 2022ko jende kondaketaren kanpaina iraganen dela urtarrilaren 20etik otsailaren 19ra. Bixta ederreko Carole Bidegaray eta Iribarneko Ximun Iñarrak lan hori eramanen dute. Beraz milesker harrera ahal bezain ona emaita bi herritar horiei.



## GURE INGURUMENA

### Argiaren erabilpena

Gaueko argi publikoaren ordutegia moldatua izan da sasoinen arabera eta beharrezkoak ez ziren argiak moztuak izan dira.

### Parkeen baloratzea:

- Zikin untziak ezarriak izan dira ezker paretan eta haurren parkean. Anitz erabiliak dira espazio hauek eta zaborrak nolanhika utziak dira ; ondorioz erabaki dugu tresna hauen ezartzea.
- Parkeetako belarra moztua izan da ekain bukaeran eta uztaile hastapeneko asteburuetan, udako, denentzat erabilgarri izan diten.

### Lagun elkarteak

LAGUN elkarteari garbitze lanak proposatu dizkiogu ; lotizamendua, Murgialdeko erreka, Andreseneko bidea, Ahaizemendiko bide zaharra garbitu dituzte, beharrezkoak ziren lanak egin dituzte aurten ere.

## FORMAKUNTZAK

### LEHEN SOKORRIAK

2021eko ekainean, UDPS 64 formakuntza organismoak herriko langileer salbatzeko jarduera erakutsi dizkie. Berehala eta manera eraginkorrean eskua hartzea edozoin istripuren ondotik baita ere prebentzio errola segurtatzea zen formakuntzaren helburua. Langile guziek, laneko salbatzaile agiria lortu dute herritarren segurtasun hobea bermatzeko herriko zerbitzu guzietan.. 2020/2021 ikasturteko 2 erakasleek ere formakuntza segitu dute Herriko Etxeak eskainirik.

Herriko Etxeak salbatzeko jarduera formakuntza bat proposatu nahi du Ortzaiztarrei. Eguna hautatua izanen da nahianten disponibilitateen arabera. Lehen mailako formakuntzak (PSC1) 55€ gostako du. HZS-k 10€ beregain hartuko ditu izena emanen duen Ortzaiztar bakotxari. Interesatuak bazirezte, jakinaraz ezazue Herriko Etxeko idazkaritzarat.



### NUMERIKOAK

2022ko udaberrian, Fibre 64 enpresak 2ak30ko 4 tailer animatuko ditu informatika ezagutzak hobetu nahi dutenentzat. Parte hartzaileen arabera formakuntza egokitua izanen da (hasiberriak edo numeriko gaia hobetu nahi dutenak) eta 10 oren iraunen du. Interesatuak bazirezte, jakinaraz ezazue Herriko Etxeko idazkaritzarat.

## ABENDUKO UHOLDEAK

Abenduaren 9ko uholdeen ondotik herriak katastrofe naturala egoera ukan du. Horri esker, kalteak ukan dituzten herritarrak fiteago ordainduak izanen dira.

Gerexiteneko zubiko hesi bat hautsia izan da besteak beste.

Uholdeetarik landa ez duda auzoetako ordezkarietaz edo Herriko etxeaz hurbiltzea edozoin motako laguntza behar baduzue.



## HERRIKO LANGILEAK

- 25 urtez Herriaren zerbitzuko aritu izan ondoren Antxiko Patrice Trounday-ek bere erretreta hartuko du 2022 urte huntan.
- Idazkaritza lanetan gero eta gehiago lan baita deliberatu dugu Itolako Floriane Changala enplegatzea urte batez Jeanine laguntzeko, hogoi orenez asteen.

## ABIADURA PLAZAN

Plazari antolakuntza berri bat eman aitzin nahi ginuen jakin zonbat auto eta kamion pasatzen ziren Hartzako karrikatik. Ekainaren 9tik 15era kondatzaile bat ezarria izan da eskola publikoko heinean. Aste hortan, bataz beste 1740 auto eta 64 kamion pasatu dira egunean. Uste ez bezala, autoen %85ak 50km oreneko abiadura errespetatu du. Hala ere, seguritateari lehentasuna emanen dakogu antolaketa berriaren gogoetan.

## BIDE PROGRAMA

2021ean, bide arraberritze obrak merkatu publikoan jarriak izan dira. 4 enpresek erantzun dute eskaintza horri. Carrière et Travaux de Navarre (CTN) enpresa atxikia izan da. Bide berritze programa hori ondoko herriko bideentzat pentsatua zen :

- Abaratsuneko bidea eta Xerrendako bidea (Gaztenareneko bidea)
- Tipirenaldeko bidea (Tipiren bordako bidea)
- Elixagabordako bidea (Konpaseneko bidea)
- Irigoizetako bidea

Azken hau ez da bukatua izan eta 2022ko programean sartuko da. Auzo batzu, obra horietaz baliatu dira beren etxeko bideen "enrobotzeko" obren egiteko.